

## EUSKARALDIA

Bigarren Hezkuntzako ikasleek Euskaraldian parte har dezaten zenbait proposamen



Hainbat ikastetxeetatik eskatu dizkiguzue aholkuak eta proposamenak Euskaraldiaren inguruan. Ondoko orrialde hauetan zenbait proposamen aurkezten dizkizuegu. Proposamen batzuk eta kontuan hartzeko aholku batzuk dira, seguruenik hainbat eskola eta institututan dagoeneko zuen bidea garatzen ariko zarete eta ziur planteamendu onak izango direla. Ebetetik ekarpen bat egiten ahalegindu gara interesa eduki dezaketenek kontuan hartu edo erabili ahal izateko.

## 1 – Zer hartu kontuan?

---

Euskaraldia 16 urtetik gorakoentzat ekimena da. Ariketa sozial horren helburua helduen hizkuntza-ohituretan eragitea da, eta ezaugarri guztiak horren arabera landu dira.

Batxilergoek Euskal Herri osorako antolatu den ekimenean parte hartu ahal izango dute, baina DBHkoek ez. Hainbat arrazoi daude hori horrela izan dadin, besteak beste:

- Ahobizi eta Belarriprest rolak betetzea 15 egunetan zehar oso zaila egingo zaie. Behar bada testuinguru euskaldunetan ez, baina bai beste guztietan. Ez da euskararen aldeko kanpaina bat, hori baino askoz gehiago da.
- Helduei begirako ekimen bat haurrentzako jai bat bihurtzeko arriskua nabarmena da, eta gainera neurri handi batean eskolarekin lotutako zerbait.

Baina, bestalde, Euskal Herrian azken hamarkadetan sortu den ekimen berezietakoa izango da eta gainera hedapen oso handia izango duena. Ondorioz:

- Hainbat eta hainbat herritan Ahobiziak eta Belarriprestak kalean oso nabarmen ikusiko dira. Hizkuntza-ohiturei dagokionez ikasleek inoiz izan dituzten baino erreferente eta eredu gehiago izango dituzte inguruan.
- Aukera bikaina da haurrekin eta nerabeekin hizkuntza-ohiturei buruz hitz egiteko, beraiekin saiakeraren bat egiteko, edo beraiek eragile bihurtzeko

Ebetetik honako proposamena egiten dizuegu:

- Landu ikasleekin Euskaraldia
- DBHkoekin ez kopiatu eta aurrera eramanez ekimena bere horretan. Ez da ikasleei begira egokia eta herri mailako ekimenean eragina izan dezake. Baina egokitu ekimena eta baliatu ikastetxeen eta institutuen helburuei begira ere.

## 2– Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat proposamenak

- 1.– Ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren
- 2.– Euskaraldiko egunetarako zenbait proposamen
- 3.– Gurasoen eta ikastetxeko beste eragileen inplikazioa bilatzea

### 1.– DBHko ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren

Aurkezpena	<p>Euskaraldia aukera ona izango da ikasleekin euskarari buruz eta hizkuntza-ohiturei buruz hitz egiteko. Beraien inguruan ikusiko dute guraso edo gertuko aldetik, karteletan, ekitaldietan, telebistan eta abar.</p> <p>Hori baliatuz, ikasleekin hiru sentsibilizazio saio egiteko proposamena aurkezten dizuegu.</p>
------------	--

Lehenengo saioa (azaroan)	<ul style="list-style-type: none"> <li>–Taldeka jarriko ditugu: 3 edo 4 kideko taldeak.</li> <li>–Galdera batzuk jarriko dizkiegu pantailan: Euskaraldia zer den ba al dakizue? Eta ez badakizue, zer datorkizue burura? Ahobizi eta Belarriprest hitzekin zer datorkizue burura?</li> <li>–Taldea bakoitzak 2 edo 3 minutu izango ditu hitz egin eta zerrendatxo bat egiteko.</li> <li>–Lau postit emango dizkiegu.</li> <li>–Apuntatu dituzten lau ideia postit banatan jarriko dute.</li> <li>–Taldea bakoitzeko ordezkari bat arbelera hurbilduko da, eta txandaka lau ideiak aipatuko dituzte.</li> <li>–Irakasleak postitak arbelean jarriko ditu eta ahal dela multzokatu egingo dituzte ezaugarrien arabera.</li> <li>–Laburpen moduko bat egingo du. Ahal dela errefortzu positibo bat ere emango du: zuzen zabilzate. Euskaraldiaren mamia hortxe dago.</li> <li>–Euskaraldia aurkeztu diegu: bideo bat jarriko diegu.</li> <li><a href="https://vimeo.com/289248388/513d1c2535">https://vimeo.com/289248388/513d1c2535</a> hiru minutuko bideo bat azalpen batekin: zer den ahobizi, zer belarriprest, non egingo den... (denboraren arabera, bideo hau luzeegia bada, interneten badaude beste hainbat aukera)</li> </ul>
---------------------------	---

	<p>-Azalpena: Euskaraldia, Ahobizi, Belarriprest... Oinarrian hizkuntza-ohituren gaia dago.</p> <p>-Zergatik sortzen dira modu honetako ekimenak? Zergatik eragin nahi da hizkuntza-ohituretan?</p> <p>-Taldea galdera bati erantzuteko eskatuko diegu: gure inguruan gazteen %100ek euskaraz ulertzen du. Euskararen erabilera, berriz, askoz txikiagoa da. Zergatik ez da gehiago erabiltzen? Gehiago erabili nahiko bagenu, lortuko genuke? Zein izan daitezke zailtasunak? Argi azalduko diegu ez dugula inoren ohiturarik epaitu nahi. Soilik hausnartu egin nahi dugula arrazoen inguruan. Galderak intuiziotik erantzuteko, hau da, erantzun ez logikoek ere balio dute, ez politikoki korrektua dena.</p> <p>-2 edo 3 minututan zerrenda egingo dute. Ondoren talde handian aipatuko ditugu.</p> <p>-Azalpena: hainbat arrazoi daude hizkuntza-ohituretan eragiten dutenak. Jende askok euskara gehiago erabili nahi luke, aukerak badaudela ikusten dute, baina ohiturak aldatu behar dira horretarako.</p> <p>-Hortik sortzen dira modu honetako ekimenak.</p>
	<p>-Gai honen inguruan hitz egiten jarraitu nahi dugula esango diegu.</p> <p>-Euskaraldia ekimen oso berezia izango da eta oihartzun handia izango duena.</p>

<p>Bigarren saioa (azaroan)</p>	<p>-Aurreko egunean hasitako gaiarekin jarraitu nahi dugula esango diegu: Euskaraldia.</p> <p>-Hizkuntza-ohiturei buruzko ekimena dela gogoraraziko diegu, baina horretaz baino ohiturez hitz egiten hasi nahi dugula.</p> <p>-Azalpena: hainbat ohitura finkatuta ditugu. Batzuk hizkuntzarekin baina bestelakoak ere asko. Adibidez: zer egiten dugu egunero berdintsu institutuan? Zer bururatzen zaie?</p> <p>- Ideiak botatzeko esango diegu eta guk ere ekarpenak egin ditzakegu: beti ordu berean eta leku berean geratzen gara pertsona berdintsuekin, hamaiketakorako..., atsedean tartean..., ikasgelara sartzean...</p> <p>- Zein bestelako ohitura ditugu etxean edo kalean?</p> <p>- Ondorioa: gure bizitza ohitura eta errutinez betea dago.</p> <p>- Baina ohiturak aldatu al daitezke?</p> <p>- Taldetxoetan aldatu izan dituzten ohiturei buruz hitz egiteko eskatuko diegu: beraiek aldatu dituztenak edo ezagutzen dituztenak. Zerrenda bat egin behar dute bi-hiru minututan. Ondoren, talde bakoitzak bereak irakurriko ditu.</p> <p>-Ohiturak aldatzea erraza edo zaila al da? Iritzi truke bat egingo dugu.</p> <p>-Ohituren aldaketan inguruan proposamen bat egingo diegula esango diegu.</p>
	<p>-Ohiturei buruz aritu gara, baina zer esan dezakegu hizkuntza-ohiturei buruz?</p> <p>-Hizkuntza ohiturei buruz hitz egingo dugula esango diegu. Ez dugu inor epaitu nahi. Ez diogu inori esan nahi euskaraz gehiago egin behar duenik eta ez dugu inor zoriondu nahi.</p> <p>- Bi galdera egingo dizkiegu. Bat beraiei buruz eta bestea ezagutzen duten beste hainbati buruz.</p>

-Lehenengo galdera. Lehen orain baino euskara gehiago erabiltzen al zuten?  
 - Kokatzen lagunduko diegu: Lehen Hezkuntzan euskara gehiago erabiltzen al zuten? Non ikasten zuen bakoitzak? Zein izan zen beraien tutorea bosgarren eta seigarren mailan? Eskatzen al zieten euskara erabiltzeko? Klean edo eskola orduz kanpoko jardueretan norekin ibiltzen ziren? Non?  
 - Ondoren, taldeka, galdera erantzun behar dute: lehen orain baino euskara gehiago erabiltzen al zuten?  
 - Talde handian iritzi trukea egingo dugu.  
 - Kontuan izan: taldetxoetako kideen erantzunak ez du berdina izan beharrik, iritzi bat baino gehiago jaso dezakete.  
 - Ikusi nahi dugu hainbatek baduela pertzepzio hori: lehen euskaraz gehiago egiten zutela.

- Galdera bat egingo diegu eta nahi duenak erantzungo du: erabilera orain txikiagoa dela diozuenen kasuan, zergatik izan daiteke? Zergatik jaitsi da erabilera? Esaten dituztenak arbelean jarriko ditugu.  
 -Bigarren galdera. Erabilerak behera egin dezake, eta gora ere bai. Ezagutzen al dute hizkuntza-ohiturak aldatzen saiatu izan den norbait? Lagunartean, etxean... Edo euskaltegian euskara ikasi eta lehen erdaraz egiten zuen batzuekin orain euskaraz egiten duenik? Zergatik aldatu nahi izan du? Lortu al du? Zein zailtasun izango zituen? Talde handian egingo dugu. Nahi duenak emango du iritzia.

-Proposamen zehatz bat aurkeztuko diegu.  
 -Ohiturekin eta hizkuntza-ohiturekin erronka txiki bat aurkeztu nahi diegu.  
 -Borondatezkoa izango da, nahi duenak parte har dezake.  
 -Hizkuntza-ohiturei buruzko orri bat emango diegu: "Ohitura aldaketan erronka: norekin egiten dut euskaraz?" izeneko fitxa banatuko diegu  
 - Betetzen dutenean bigarren fitxa bat emango diegu: "Ohitura aldaketan erronka: erronka baterako prest?" izenekoa.  
 -Bertan ohitura aldaketa txiki bat eta hizkuntza-ohitura aldaketa txiki bat proposatuko dizkiegu.  
 -Epea zehaztuko dugu: aste bat edo bi izan daitezke, edo Euskaraldiko egunak  
 - Epe horretan ohitura horiek izatera gonbidatuko ditugu  
 -Kontuan izan: Aukera bat da ohitura aldaketan erronka Euskaraldiaren aurretik egitea daiteke ariketa sozial horren ezaugarriez kontziente egiteko. Bestea da Euskaraldian bertan egitea 11 egunetarako erronka moduan.

## OHITURA ALDAKETEN ERRONKA

### NOREKIN EGITEN DU EUSKARAZ?

A- Guztia euskara    B- Gehiena euskaraz    C- Gehiena gaztelaniaz    D- Guztia gaztelaniaz

	Nor da?	Zenbat euskara erabiltzen duzu?		
		Ikasgelan	Ikastetxean	Ikastetxetik kanpo
Harreman handia duzun lagun bat				
Harreman handia duzuen beste lagun bat				
Harreman handia duzun hirugarren lagun bat				
Ikasgelan zure ezkerretan esertzen dena				
Ikasgelan zure eskuinetan esertzen dena				
Jangelan zure aurrean jartzen dena				
Jangelan zure ezkerretan esertzen dena				
Nahi baduzu, besteren bat ere jar dezakezu:				

## OHITURA ALDAKETEN ERRONKA

### *Erronka baterako prest?*

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norekin egiten dut euskaraz? fitxatik guztia euskaraz egiten ez duzun bi pertsona aukeratu.</li> <li>- Egoera bat aukeratu: Gelan, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo.</li> <li>- Hurrengo urratsera iristen saiatu behar duzu astebete horretan zehar:             <ul style="list-style-type: none"> <li>o D den kasuetan, C izatea.</li> <li>o C den kasuetan, B izatea.</li> <li>o B den kasuetan, A izatea.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Horretaz gain, horiekin beste ohira bat ere aldatu behar duzu aste honetan zehar:             <ul style="list-style-type: none"> <li>o 1 aukera: egunero, lehenengo aldiz ikustean besarkada bat ematea</li> <li>o 2 aukera: egunero, gutxienez bi aldiz urrutitik ikustean oihu eginaz agurtu: <i>..., egun on!, ..., arratsalde on!, ..., ondo pasa!...</i></li> <li>o 3 aukera: egunean zehar, gutxienez hiru aldiz, honakoa esan behar diozu: <i>Marigorringo, zurigorringo, bihar eguzki ala euri egingo?</i></li> <li>o 4 aukera: goizean, eguerdian, arratsaldean eta gauen watsap bat bidaltzea modu honetako esaldiren batekin: <i>Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi... gora gu!</i></li> </ul> </li> </ul>
--	--

### *Zein pertsona, egoera eta helburu aukeratu dituzu? Frogatzeko prest?*

	Izena	Egoera	Hizkuntza-ohitura	Beste ohitura
1				
2				

<p>Hirugarren saioa (abenduan)</p>	<p>Abenduko saioan ere Euskaraldiari buruz hitz egin nahi dugula esango diegu. Hasteko, datu nagusienak emango dizkiegu: zenbat herrik parte hartu duten, zenbat Ahobizi eta Belarriprest aritu diren Euskal Herri osoan eta gure herrian...</p> <p>Ondo legoke Euskaraldiko bi-hiru bideo jartzea: Interneten herrietan egindako gero eta bideo gehiago daude eta horietako batzuk laburrak eta umoretsuak dira.</p> <p>Ondoren, beraien bizipen eta sentazioei buruz galdetuko diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Non ikusi dute Euskaraldia? Inguruko batzuk aritu dira? Klean ikusi dute jendea pin-arekin? Ekitaldietan parte hartu dute?</li> </ul> <p>Ohituren erronkari buruz ere hitz egingo dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer moduz ohituren erronka? Hizkuntza-ohitura bete al dute? Beste ohitura ere bai? Erraza edo zaila izan al da? Ondo pasa al dute?</li> <li>- Mezu bat emango diegu: nahi badugu ohiturak aldatzeko gai gara eta hizkuntza-ohiturak ere bai. Gainera, gustura aritu gaitezke horretan. Ohitura aldaketa handiak zailak izan daitezke behar bada, baina aldaketa txikietatik hasita besteak ere etor daitezke nahi badugu.</li> </ul> <p>Amaitzeko, Euskararen egoerari buruzko mezu bat emango diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gero eta jende gehiagok daki euskara eta gero eta leku gehiagotan erabiltzen da.</li> <li>- Hainbat harreman lehendik erdaraz dira eta jende askok aldatu nahi luke euskaraz izateko. Hori ez da erraza, ohiturak aldatzea ez da erraza.</li> <li>- Horretarako dira Euskaraldia moduko ekimenak. Aldatu nahi dutenei bidea errazteko.</li> <li>- Zuek ere behar bada euskara gehiago erabili nahiko zenukete. Horrelako ekimeneak lagunduko ligukete guztioi.</li> </ul> <p>Aurrera begira ekimeneen bat egiteko aukera irekita utziko dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Behar bada aurrerago ere egingo dira horrelakoak. Euskal Herri osoan ez bada ere, institutuan egin ditzakegu. Zer iruditzen zaizue?</li> </ul>
------------------------------------	--



## 2.- Euskaraldiko egunetarako zenbait ideia

<p>Aurkezpena</p>	<p>Euskaraldiko 11 egunetan zehar ikasleekin inguruan ikusten dutenaz hitz egin dezakegu eta mezu egoki batzuk eman ditzakegu. Kontuan izan ekimena telebistan ikusiko dutela, kalean karteletan, ekitaldietan, herriko hainbat jende pin-arekin eta abar.</p> <p>Azken batean: inoiz baino erreferente eta eredu gehiago izan ditzakete inguruan, eta ekimena baliatu behar dugu horretaz konturatu daitezen eta horiekin harremanetan jartzeko.</p>
<p>Egunez eguneko erronka eta balorazioak</p>	<p>11 egun horietako bakoitzerako erronka edo etxerako lan zehatz bat aurkeztu diezaiekegu. Helburua ez da beraiek euskara gehiago erabiltzea, inguruan euskara gehiago erabili nahi duen jende asko dagoela ikustea baizik, eta euskara dakitenak eta erabiltzen dutenak behar bada gure ikasleek uste dutena baino askoz gehiago izatea.</p> <p>Beraz: erronka edo zeregin guztien ardatza eredu eta erreferenteekin harremana bilatzea izan daiteke. Zereginen ezaugarriak ondo neurtu: egiteko modukoa izan behar du, kasu gehienetan borondatezkoa izan beharko du, eta gustura egiteko moduko zerbait izan behar du.</p> <p>Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezagutzen ez dituzuen bi Ahobizirekin argazkia atera eta ekarri. Galdetu zergatik diren Ahobiziak eta gustura ari ote diren.</li> <li>- Ezagutzen ez dituzuen bi Belarriprestekin argazkia atera eta ekarri. Galdetu zergatik diren Belarriprestak eta euskara gehiago erabiltzen ari ote diren edo besteek beraiekin gehiago egiten ote duten.</li> <li>- Ikasleei goxoki batzuk banatu, eta ezagutzen dituzten Belarriprest edo Ahobiziei goxokiak emateko eskatu. Zoriondu eta animatu ditzatela.</li> <li>- Herrian egingo den ekitaldiren batera joatera gonbidatu.</li> <li>- Interneten Euskaraldiko bideoak bilatzeko eskatu. Aukeratu ditzatela bat edo bi gustukoak. Ikasgelan horiek jarri.</li> <li>- ...</li> </ul>

	<p>11 egun horietan 2 asteburu daude tartean. Beraz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Lehen eguna astebururako proposamena egiteko izango da</li> <li>-Ondoren bost egun izango ditugu. Egun horietako bakoitzean tarte bat hartu beharko genuke ikasleekin auzerik bidalitako zeregin edo erronkari buruz hitz egiteko. Euskaraldia oso presente egotea nahi dugu eta aktiboak diren euskaldunekin harremanetan jartzea. Merezi du bost egun horietan tarte hauek hartzea.</li> <li>-Azken eguna astelehena izango da, abenduaren 3a, eta hainbat ikastetxetan Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldiak egingo dira. Horrela bada, ez da egun egokia Euskaraldiari buruz hitz egiteko. Hobe bi edo hiru egun utzi eta beste saio batean horretaz hitz egitea. Adibidez: aurreko puntuan proposatutako hirugarren sentsibilizazio saioa egokia da horretarako.</li> </ul>
<p>Hamaika egunetarako dinamika edo ariketa</p>	<p>Hamaika egun horietan zehar ikasleek euskara gehiago erabil dezaten ere saia gaitezke, eta beraiei ere Euskaraldiak proposatzen duen ariketa soziala eskaini. Baina ikasleen ezaugarrietara egokitu behar dugu, Euskaraldia helduei begirakoa da eta ezaugarri jakin batzuen arabera garatu da.</p> <p><b>Ohitura aldaketan erroka proposamen zehatz bat da.</b> Hori ikasleekin egiteko aukera ona izan daiteke. Nahi izan ezker, hori bera erabil dezakezue 11 egunetan zehar. Azalpena aurreko puntuan aurki dezakezue: ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren.</p> <p>Nahikoa ez bazaizue iruditzen edo beste zerbait gehiago egin nahiko bazenute, ondorengo puntuak kontuan hartzea proposatzen dizuegu.</p> <p>Ez.</p> <p>Ez erabili Ahobizi eta Belarriprest pin-ak ikasleen artean banatzeko. Ikasleei ekimena proposatu nahi badiezue izena eta irudia, pixka bat bada ere, aldatu. Ikus dadila ikasleei begirako ekimena dela.</p> <p>Adibidez: Institutuko Ahogozoak, Ikastetxeko hiztunak edo dena delakoa. Herri mailako helduen ekimena eta gure ikasleena ez nahastea komeni da, lotura egitea ondo dago baina arriskua dugu ikasleen ekimen moduan ikustekoa eta hori baino askoz gehiago da Euskaraldia.</p> <p>Ez.</p> <p>Ez proposatu besterik gabe Ahobizi edo Belarriprest izan nahi ote duten. Hobe beste figura bat sortzea eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea. Gure ikasleentzat oso zaila da benetan Ahobizi rola ondo betetzea. Gainera, Ahobizi izateak prestigio gehiago izan dezake Belarriprestak baino. Jarri zuen ikasleen lekuan: benetan Ahobizi izateko prest egon daitezkeen horiek lortuko dute beraien adin beretsuko guzti guztiekin 11 egunetan erabat euskaraz egitea? Hori da Ahobizi izatea beraien kasuan.</p> <p>Ez.</p> <p>Ez duzue lortuko horrelako ekimenekin ikasleen hizkuntza-ohiturak aldatzea. Behar bada testuinguru euskaldunetan lagundu dezake, baina ez besteetan. Ez pentsatu ekimenean parte hartzeko prest daudelako beraiantzat erraza denik.</p>

Bai.

Bai. Ekimena moldatu. Izen berri bat jarri eta 11 egun horietan egin. Erronka edo zeregina ere moldatu. Hainbat modutara egin daiteke:

- 11 egun horietan zehar euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egin behar dute (horrek ez du esan nahi denbora osoan egin behar dutenik, ahalegindu behar direla soilik). Egunero tarte batean baloratu egingo dugu ahalegindu diren.
- Guztiei (edo prest daudenei) 11 egunetan euskara gehiago erabiltzeko proposatzea baino, egun bakoitzerako erronka zehatz bat proposatu daiteke: gaur patioa, gaur pasiloa, gaur jantokia... Ez du esan nahi beste tarteetan ez dutenik ahalegindu behar, baina bereziki momentu horietara ekarriko dugu ahalegin kontzientea beraientzat lortzea errazagoa izan dadin.
- ...

Bai.

Bai. Ekimen hau jarreretan kokatzen da batez ere. Hizkuntza-ohiturak ez ditugu aldatuko baina euskara gehiago erabiltzeko ahalegina sentsazio eta bizipen positiboekin lotu dezakete. Jarrerei begira hori oso garrantzitsua da. Ez kontuan izan zer gertatzen den Euskaraldiaren ondoren eta baliatu egun horiek beraiek gehiago erabiltzeko ahalegina egitera begira eta guk horri errefortzu positiboak ematera begira.

Bai.

Bai. Irakasleok Hezitzaile Berritsu oso aktiboak izan beharko duzue Euskaraldian zehar. Pasiloetatik eta patioan asko ibili, elkarrizketa askotan parte hartu... Lagundu behar diegu euskara asko erabiltzen, proposatutako ariketak betetzen, eta gu horrela bagabiltza askoz errazagoa izango da errefortzu positiboak ematea edota ahalegin txikiak eskatzea beraiekin balorazioak egiten ditugunean.